



QR kode hau irakurtzaile batekin irakurriz gero, bideoa ikusi ahal izango duzu. Leyendo este código QR podrás ver el vídeo.

<http://www.youtube.com/user/GFABerri>



Eskeerrik asko, Mutriku

Talaitik Kantauri itsasoari begira dagoen Mutriku herri malkartsua bezain abegitsua bisitatu genuen Foru Aldundiko ordezkari batek, Martin Garitano diputatu nagusia buruan. Udal ordezkarien harreraren ondoren, neguko denboraleak utzitako txikizioaren ondorioak pairatu zituzten bizilagunekin egon ginen. Luiziak zenbait etxebizitzetan eragindako txikizioa nola konpondu duten erakutsi zigun bizilagun batek bere etxean bertan. Handik Merkatu plazara, espazio hori biziberritzeko egiten ari diren lanak ikustera. Adinekoen egoitzaren behealdean eraiki nahi duten eguneko zentroaren xehetasunak eman zizkiguten, baita Alde Zaharreko kale estuetan balizko sute baten aurrean gerta litezkeen arriskuen berri ere. Erremitteria zonalde degradatuan hastekoak diren lanak ikusi eta hutsik dagoen Konbentuak izan ditzakeen erabilerez hitz egin genuen. Herria modu jasagarrian garatzeko sortu den taldearen lana ere ezagutu genuen, eta Sasiola errepideak Astigarribia auzoan sortzen dituen kezkek ere jakinarazi zizkiguten. Amaitzeko, herritarren zalantzak eta proposamenak jaso genituen herri bilera irekian.

Foru Aldundiko kideok ekarpen guztiak jaso genituen, eta bidera dezakegun guztia bideratzeko konpromisoa hartu dugu. Dena dela, batez ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu egindako harrera beroarengatik.

Hurrengora arte.

Una representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el diputado general Martin Garitano al frente, visitamos Mutriku, un pueblo que mira al Cantábrico desde su privilegiada atalaya y que, aunque de orografía abrupta, nos mostró su lado más hospitalario. Después de reunirnos con los representantes municipales, conocimos de primera mano los efectos del temporal en varios edificios de viviendas y las obras que han acometido para atajar el riesgo de más desprendimientos de tierras. De allí, a la plaza del Mercado, que se está remodelando para llenarla de vida. En la residencia de personas mayores nos informaron de sus planes de adecuar un espacio que funcione como centro de día. También nos trasladaron la preocupación de la vecindad del Casco Viejo ante las dificultades de extinguir un posible incendio en sus estrechas calles. También visitamos la zona degradada de Erremitteria, donde están a punto de empezar las obras para acondicionar la calle, y el edificio del Convento, ahora vacío y lleno de posibilidades aún inciertas. Conocimos el trabajo del grupo creado para fomentar el desarrollo sostenible del municipio, y las preocupaciones del vecindario de Astigarribia ante la construcción de la carretera de Sasiola. Para finalizar, la ciudadanía nos hizo llegar sus propuestas y sus dudas.

Los miembros de la Diputación Foral recogimos todas las aportaciones y nos comprometemos a encauzar todo aquello que esté en nuestras manos. En cualquier caso, queremos agradecerles de manera especial el cálido recibimiento que nos han dado.

¡Hasta la próxima!



Martin Garitano Larrañaga
Gipuzkoako diputatu nagusia